

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak Enplegu Plana negoziatzeko bide-orria adostu du

*Ekimen horrekin, partaidetza organo horrek onartu behar duen agiriaren negoziazioan "ahalik eta elkarrizketa eta adostasun zabalena" lortu nahi du*

Asteazkena, 2017.eko urtarrilak 25

Gaur eguerdian elkartu da Iruñean Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilu Batzorde Iraunkorra, eta Enplegu Plana negoziatzeko bide-orria adostu du.

Helburua da "elkarrizketa eta adostasun ahalik eta zabalena" lortzea, "abian jartzerakoan eta helburuen betetze-mailari dagokionez arrakasta

handiagoa" izan dezan; helburu horrekin, ELA eta LAB sindikatuak batzarretan parte hartzera gonbidatu ditu.

Batzarrean [onartutako adierazpenaren](#) arabera, hilabetea amaitu aurretik bidaliko zaie gonbidapena ELA eta LAB sindikatuei.

CEN, CCOO eta UGT sindikatuek eta Foru Gobernuak parte hartzen dute Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluan, eta organo horrek espero du otsailaren 15a baino lehen izango dutela gonbidatutako erakundeen erantzunaren berri.

Bestalde, lanerako oinarritzat hartzea Batzorde Iraunkorrek erabaki du Nafarroako **Gobernuak joan den irailean aurkeztutako Enplegu Planaren zirriborroaren proposamenak**, bai eta gainerako erakundeek edo Foru Gobernuak berak egin ditzaketan ekarpen berriak ere.

Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak erabakiko du Enplegu Planaren edukien egitura; gutxienez, honako hauek jasoko ditu: enplegu-politika aktiboak, lan-arriskuen prebentzioa eta lan-osasuna, ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka, lan-harremanen eta negoziazio kolektiboaren esparrua, lanean genero-berdintasunerako politikak, eta enpleguan ingurumen-gaien inguruko sentsibilizazio-, informazio- eta trebakuntza-politikak.

Gainera, Batzorde Iraunkorrek adierazi du Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekiko (S3) konpromisoa hartzen duela, eta Enplegu Plana



Batzarreko argazkia.

estrategia horrekiko lerrokatuta egotea nahi duela.

Negoiazioari dagokionez, enplegu-politikari dagokiona Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gobernu-organoetan eta eratorritako lan-batzordetan eztabaidatu, adostu eta onartuko dela ezarri da.

Lan-arriskuen prebentzioaren esparruari dagokionez, Enplegu Planaren neurriak zehaztuko direla indarrean dagoen Lan Osasuneko Planarekin "erabateko koherentziari" eutsiz, bai eta Lan Osasuneko Nafarroako Kontseiluak onartutako eta indarrean dauden plan operatiboekin ere.

Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak emango dio hasierako onespina Enplegu Planari.

Ondoren, jendaurrean jarriko da, herritarrek beren ekarpenak egin ahal izan ditzaten. Behin jasotako proposamenak aztertu eta adostu ondoren, Kontseilu horrek behin betiko Plana onartuko du, ondoren Nafarroako Gobernuak formalki onar dezan. Azkenik, Enplegu Plana Parlamentura bidaliko da, han berrespena eman diezaioten.

### **Batzorde Iraunkorren batzarra**

Honako kide hauek parte hartu dute gaur, asteazkena, Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek egin duen batzarrean, Nafarroako Gobernuaren izenean: Manu Ayerdi Ekonomia Garapeneko lehendakariordeak; Miguel Laparra Eskubide Sozialetako lehendakariordeak; Izaskun Goñi Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiak; eta Javier Zubicoa Lan Zerbitzuko zuzendariak; azken horrek egin ditu idazkari-lanak.

Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren izenean, berriz, Jose Antonio Sarria lehendakariak eta Carlos Fernandez Valdivielso idazkari nagusiak hartu dute parte. CCOO sindikatutik, Raul Villar idazkari nagusia eta Industria Federazioko idazkari nagusi Chechu Rodriguez. Azkenik, UGT sindikatuko idazkari nagusi Jesus Santos eta Politika Sindikaleko idazkari Marisol Vicentek hartu dute parte batzarrean.

### **Argazki-oina.**

Ezkerretik eskuinera: Javier Zubicoa, Miguel Laparra lehendakariordea, Manu Ayerdi lehendakariordea, Izaskun Goñi, Carlos Fernandez, Marisol Vicente, Jesus Santos, Jose Antonio Sarria, Raul Villar eta Chechu Rodriguez.